



Gaia 2/2017

EBAZPENA, (...) DEPARTAMENTUKO (...) ZUZENDARI NAGUSI (...)K, JARDUERA PROFESIONAL EZ ORDAINDU BATEAN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO KARGUAN JARDUTEAREN BATERAGARRITASUNAZ, EGIN DUEN KONTSULTARI BURUZKOA

I.- KONTSULTA

1.- 2017ko abuztuaren lauan, interesdunak, (...)ko zuzendari nagusia denak, ahozko kontsulta bat¹ egin dio foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordeari, jarduera profesional ez ordaindu batean eta Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzendari karguan jardutearen bateragarritasunaz eta halako zerbitzuak erakundearen doan eskaintzeko aukeraz.

2.- Bere azalpenean dio urteak daramatzala *Coaching* pertsonalari buruzko ikasketak egiten, zeinaren bitartez pertsona bat edo pertsona talde bat laguntzen, trebatzen edo entrenatzen den, helburu batzuk betetze aldera edo trebetasun espezifikoak garatze aldera, norberaren baliabideak eta trebetasunak erabiliz eta motibazioan, erantzukizunean eta sormenean tinko oinarrituz. Hala, joan den hiru urtean graduondo bat egiten aritu da gaiari buruz, zeinaren praktikak aurten bertan amaitu dituen.

Ez du bazterten profesionalki horretara dedikatzeko aukera GFAko kargualdia amaitzen duenean eta, hortaz, gustatuko litzaioke gaur egun praktikatzen eta entrenatzen jarraitzea. Adierazi du ez duela asmoa, kasua bada, (...)ko zuzendariaren dedikazioarekin batera emango lituzkeen zerbitzu horiengatik kobratzeko.

3.- Egin duen kontsultan, interesdunak bi kontu planteatzen ditu: alde batetik, ea jarduera profesional ez ordaindu batean GFAko zuzendari karguaren paraleloan jarduteak talka egiten duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren Zuzentasun

¹ 3/2016 Foru Dekretuak, martxoaren 1ekoak, Erakundearen Etika Batzordea sortzekoak, 6.4. artikuluan dioena betez, kontsulta idatziz jaso da, tramitaziorako: "4. Kontsultaren bat ahoz egiten bada, bere edukia idatziz jaso beharko da, eskatutako konfidentzialtasunari eustea eragotzi gabe".



Instituzionalaren Sistemarekin, eta, bestetik, ea bere zerbitzuak (doan) erakundeko prestakuntza planaren barruan eskaintzea Sistema horrekin bat datorren.

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluak Gipuzkoako Foru Aldundiko eta bere sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema onartu zuen 2016ko martxoaren 1ean, etika publikoa eta eredugarritasuna bermatzeko eta ezaugarri bilakatzeko xedez.

Sistema horrek berekin du Jokabide eta Jardunbide Egokien Kode bat, zeinak ezartzen baititu foru kargu publikoek eta asimilatuek bete eta sustatu behar dituzten arauak, beren funtzioak eta jarduera publikoak betetzean edo, hala dagokionean, baita esparru pribatuko jarduerak egitean ere, horiek jardunean ari diren erakundearen irudia kaltetu badezakete. Hori guztia zuzentasuna eta eredugarritasuna sustatzeko helburuarekin, erakundearen irudia babestuz.

2.- Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen bizkarrezurrean zortzi balore daude: ordezkartza, zuzentasuna, eredugarritasuna, zintzotasuna eta eskuzabaltasuna, objektibotasuna, profesionaltasuna, eraginkortasuna, bizikidetza eta errespetua; eta, halaber, zortzi printzipio jasotzen dira: lidergo partekatu eta eraldatzailea, gardentasuna, datuen eskuragarritasuna, kudeaketa eta berrikuntza eredu berria, euskararen sustapena eta erabilera, kohesio ekonomiko-soziala eta lurralde oreka, harreman kapitalean oinarritutako gobernu eta herritarren entzute aktiboa, eta kontuak ematea.

Balore eta printzipio esparru horretan, Kodeak jokabide, jarrera eta portaera katalogo zabala jasotzen du, eta horietan osatzen dute Erakundearen Etika Batzorde honek baliatu behar duen erreferentziazko parametroa, Kodeari bere borondatez atxikitako kargu publikoek edo Kodeak jasotzen dituen aurreikuspenak bete daitezten interes zintzoa duten hirugarren batzuek aurkezten dizkioten kontsulta, zalantza eta dilema etikoak aztertu eta ebazteko.



3.- Erakundearen Zuzentasun Sistemari aurreikusten da Erakundearen Etika Batzordea sortzea, organo independente gisa eta eginkizun izanik honakoak: Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean jasotako balio, printzipio eta jokabide arauak bultzatu, sustatu eta horiek betetzen direla bermatzea, eta erakundearen irudia kaltetu dezakeen edozein ez-betetzari edo jokabide desegokiri aurrea hartzea.

Berme organoaren eginkizunak kargu publikoen eta langile baliokideen gainean proiektatuko dira, eta baita Foru Administrazioaren eta beronen foru sektore publikoaren zerbitzuko pertsonalaren gainean ere, hala badagokio.

4.- 3/2016 Foru Dekretuak, martxoaren 1ekoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzeak, 3.b) artikuluan xedatzen du EEBri dagokiola ebazpen, txosten edo oharren bidez ebaztea kargu publikoek egindako kontsultak eta azaldutako zalantza eta dilema etikoak.

5.- Eskatzaileari Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea zaio aplikagarri, haren 1.3 arau orokorreko 1. ataleko b) letran zehazten den aplikazio esparruaren ondorioz.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

Planteatutako gaia da ea bateragarria diren jarduera profesional ez ordaindu batean jardutea eta GFARI berari zerbitzuak (doan) eskaintzea (...)ko zuzendari karguan jardutearekin.

1.- 6/2005 Foru Arauak, uztailaren 12koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 47. artikuluan xedatzen du zuzendari nagusiek 37. artikuluan foru diputatuentzat ezarritako bateraezintasun araubidea izango dutela; artikulua horrek, berriz, ezartzen du diputatu nagusiarentzat 24. artikuluan finkatutako bateraezintasun araubidea izango dutela; eta horrek, azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari kargu publikoentzako bateraezintasunei buruzko legeriara igortzen du.



Ondorioz, bai diputatu nagusiari, bai foru diputatuei, bai eta zuzendari nagusiei aplikagarri zaie 1/2014 Legeak, ekainaren 26koak, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak arautzekoak, eta 156/2016 Dekretuak, azaroaren 15ekoak, kargu publikodunen betebeharreri eta eskubideei buruzkoak aurreikusten duten bateraezintasun araubidea zaie aplikagarri.

Lege horrek III. Kapituluari jasotzen du kargu publikodunen bateraezintasun araubidea. 12. artikuluan hau xedatzen du:

12. artikulua.– Arduraldi eskusiboa

1.– Lege honen aplikazio-eremuan dauden kargu publikodunek arduraldi eskusiboz beteko dituzte eginkizunak eta ezin izango dute aldi berean, ez berek ezta ordezipen edo ahalordetze bidez ere, ezein postu, kargu, ordezkapen, lanbide, merkataritza-jarduera, jarduera profesional edo industria-jardueratan aritu, publikoetan zein pribatuetan, norberaren kontura edo inoren kontura izan

12. artikuluan dioenarekin bat etorriz, kargu publikodunen dedikazioak eskusiboa izan behar du eta, beraz, ez du baimentzen bestelako ezein jarduera profesionaletan jardutea, bereizi gabe jarduera ordainduak diren la ez diren. Horregatik, kasu honetan ez da esanguratsua eskaini nahi diren zerbitzuak doakoak izatea ala ez izatea.

2.- Nolanahi ere, bai ekainaren 26ko 1/2014 Legeak berak, bai 156/2016 Dekretuak, azaroaren 15ekoak, kargu publikodunen obligazio eta eskubideei buruzkoak, xedatzen du kargu publikoa bateragarria dela jarduera pribatu jakin batzuekin. Horrela, aipatutako dekretuak, 21. artikuluan, aipatzen ditu bateragarri izan daitezkeen jarduerak:

21. artikulua.- Jarduera pribatuen bateragarritasuna

1.- Kargu publikoa betetzeak jarduera pribatu hauek ditu bateragarri:

a) Norberaren edo familiaren ondarea administratze hutsa, ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 22 eta 23. artikuluetan jarritako mugak eta guzti.

Inola ere ez gaude norberaren edo familiaren ondarea administratze hutsaren kasu baten aurrean, hain zuzen, ordainsariak dituzten karguak (adibidez, gerenteak edo kontseilari delegatuak) betetzen direnean, edo gizarte-segurantzaren erregimenean sartuta egoteak dakarren beste edozein kargu gauzatzean.



Kargu publikodunak bere ondarea merkataritza-sozietate baten bidez antolatuta badauka, sozietate horren gobernu-organoei buruzko notario-eskritura aurkeztu beharko du. Beste kasu batzuetan, kargu publikodunak ondare hori kudeatu dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Langileen Erregistro Zerbitzuak, emandako dokumentazioa ikusita, eta txostena izapidetu baino lehen, langile eskatzaileei eskatu ahal izango dizkio egokitzat jotzen dituen argibideak. Ebazteko epea bertan behera geratuko da.

Noizbehinka parte hartzea kongresu, jardunaldi, mintegi, ikastaro eta hitzaldietan, baita komunikabideetako mahai-inguru nahiz saioetan ere, baldin eta parte-hartze hori ez bada lan-harreman baten edo zerbitzuak emateko kontratu baten ondorio.

Jarduera noizbehinkakoa izango da, baldin eta urte natural bakoitzeko, gehienez ere, 60 irakastordu ematen direnean edo komunikabideetako parte-hartze orduak 60 direnean.

Lan-harremana edo ematen diren zerbitzuen artean loturarik ez dagoela egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko da, baita zer jarduera emango den eta zenbat ordu emango diren ere.

c) Sortutako nahiz produzitutako lan literario, artistiko, zientifiko edo teknikoak merkaturatzea eta argitaratzea, baldin eta lan-harreman bat edo zerbitzuak emateko kontratu bat ez bada horien sorburu.

Laneko edo zerbitzuak emateko harremanik ez dagoela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

d) Irabazi asmorik gabeko fundazioetan, elkarteetan edo erakundeetan parte hartzea, edo gizartearen edo (...)ren onerako jardueretan edo gizarte-balioak sustatzen dituzten jardueren zuzendaritza- eta kudeaketa-organoeetan parte hartzea, baina ordainsaririk gabe.

Aurreko paragrafoan deskribatutako erakundeetan bazkide soil gisa parte hartzeko ez da beharrezkoa izango bateragarritasun-baimena eskatzea.

Aztergai dugun kasuan (zerbitzuak ematea -coach pertsonal gisa-) ez dago jasota Dekretu horrek baimendutako inongo jardueratan. Hala eta guztiz ere, aurrerago, Dekretuaren 23. artikulua beste jarduera mota bat aipatzen du:

23. artikulua.- Bateragarritasunak unibertsitate-irakaskuntzan jardutearekin eta enplegatu publikoen prestakuntzarekin.

1.- Unibertsitate-irakaskuntzan eta enplegatu publikoen prestakuntzan jarduteko bateragarritasunari dagokionez, kargu publikodunek bateragari izango dituzte beren eginkizunak unibertsitate-irakaskuntzan eskola ordainduak ematearekin eta enplegatu-publikoen prestakuntzarako jardueretan parte hartzearekin, baldin eta jarduera hori ez bada haien arduraldiaren kalterako izaten eta inoiz ere ez bada hirurogei eskola-orduko kopurua urtean gainditzen..

2.- Erakundearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, urteko irakaskuntza-orduak, eta ordutegia eta lekua adierazita. Online modalitateko ikastaro eta masterrei dagokienez, dedikazio-orduak edo ECTS kredituak jasoko ditu ziurtagirian.



Zentzu horretan, (...) andreak planteatu duen bigarren gaia, hain zuzen ere, zerbitzuak GFAko Ezagutzaren Kudeaketa atalaren bitartez emateko aukerari buruzkoa da, zerbitzu hori bera delarik erakundeko pertsonalaren prestakuntza etengabera zuzendutako ikastaroak eta prestakuntza jarduerak ezartzen dituen, eginkizunak eraginkortasunez bete ditzaten ezagutza eguneratuak eta gaitasun egokiak eskuratzearen.

Ez dago inolako eragozpenik erakundeko goi kargudun bat, gai jakin horietan kualifikatua eta egiaztatua, izan dadin Ezagutzaren Kudeaketa atalari baliabide hori eskainiko diona, hark erabaki dezan bere prestakuntza eskaintzarekin bat datorren.

Edonola ere, ezarrita dagoen bezala, prestakuntza horrek ezingo du urtean 60 irakastorduen muga gainditu, eta aurrez bateragarritasun baimena eskuratu beharko da, legeriak horretarako ezarritako prozedura jarraituz.

Eta arestian aipatutako 23. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuz, ez da bakarrik aukera ematen enplegatu publikoarentzako prestakuntza emateko, baizik eta, baita ere, gehieneko ordu kopuru jakinaren eta alde aurreko baimenaren baldintzapean, bateragarri egiteko kargu publikoan eta unibertsitateko irakaskuntza ordainduan jardutea.

3.- GFAko Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeari dagokionez, ez da espresuki aipatzen debekatua dagoenik jarduera pribatu batean eta karguan batera aritzea.

Azaldutako guztia kontuan hartuz, Erakundearen Etika Batzordeak, aho batez, erabakitzen du:



EBAZPENA:

Lehena. Jarduera pribatu ez ordaindu batean eta kargu publikoan batera jarduteak ez du talka egiten Gipuzkoako Foru Administrazioako eta bere sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistemari eta Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeari ezarritakoarekin; nolahi ere, GFAko goi kargu publikodunei aplikagarri zaien arau-koherentziaren onerako, Erakundearen Etika Batzorde honek (...) andreak gomendatzen dio ez egitea.

Bigarren.- (...) andreak aukera du bai GFAko Ezagutzaren Kudeaketa atalari eskaintzeko enplegatu publikoei zuzendutako *coaching* pertsonaleko prestakuntza ikastaro bat, bai eta unibertsitateko irakaskuntza jardueran aritzeko, betiere urtean 60 irakastordu gainditzen ez baditu, aldeaz aurretik horretarako baimen egokia eskuratu badu eta legeria aplikagarriak ezarritako beharrezkoak betetzen baditu.

Donostia, 2017ko abuztuaren 14a

Erakundearen Etika Batzordeko lehendakaria

Imanol Lasa Zeberio